



**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO
OGASUN ETA FINANTZA
DEPARTAMENTUAREN ETA
..... ARTEKO PROTOKOLOA
ZERGA IRUZURRA PREBENITZEKO**

**PROTOCOLO ENTRE EL
DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y
FINANZAS DE LA DIPUTACIÓN
FORAL DE GIPUZKOA Y
....., PARA LA
PREVENCIÓN DEL FRAUDE FISCAL**

ELKARTURIK

Alde batetik, Jokin Perona Lerchundi, Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatu jauna, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuaren izenean diharduena, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak 40. artikuluan ezarritakoarekin bat.

Eta bestetik, jauna/andrea, NAN zenbakiduna,an helbideratuta dagoen eta IFK duenren gisa diharduena, Batzar Nagusiak 20..ko(e)an hala izendatu ondoren.

Bi aldeek protokolo hau izenpetzeko legezko ahalmen nahikoa aitortzen diote elkarri, eta xede horrekin honako hau

ADIERAZTEN DUTE

I. Ogasun eta Finantza Departamentuaren helburu estrategikoetako bat da zerga betebeharren betetze-maila hobetzea, ongizatearen estatua bermatzen duten kontribuzioei gizarteak balio sozial handiagoa emateagatik eta iruzurrezko jokabideen aurrean tolerantzia soziala murrizteagatik.

II. Helburu hori beteko bada, Gipuzkoako organismoek, erakundeek eta kolektibo enpresarial eta profesionalak ordezkatzen dituzten elkarteek lankidetzan jardun beharra dute. Horregatik, departamentuari interesgarri deritzo Gipuzkoako agente eta kolektiboekin lankidetzara sozialerako mekanismoak ezartzea, eta, horretarako, proposatzen du jardunbide onen protokolo bat izenpetzea, bi helburu hauekin: alde batetik, zerga iruzurraren

REUNIDOS

De una parte, D. Jokin Perona Lerchundi, Diputado Foral de Hacienda y Finanzas, actuando en representación del departamento de Hacienda y Finanzas de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en virtud de lo establecido en el artículo 40 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

De la otra, D./D^a., con DNI, en calidad de de, con C.I.F., y sede en, .. (en adelante), actuando en virtud de nombramiento efectuado por la Asamblea General el de de 20...

Ambas partes se reconocen capacidad legal suficiente para suscribir el presente protocolo y a tal fin,

MANIFIESTAN

I. Que uno de los objetivos estratégicos del Departamento de Hacienda y Finanzas consiste en mejorar el cumplimiento de las obligaciones tributarias, como resultado de una mayor comprensión del valor social de las contribuciones como garantes del estado del bienestar y de la menor tolerancia social respecto a las conductas fraudulentas.

II. Que, para cumplir dicho objetivo, resulta imprescindible la colaboración de organismos, instituciones y asociaciones representativas de colectivos empresariales y profesionales de Gipuzkoa. Por ello, el departamento está interesado en concurrir con los distintos agentes y colectivos del territorio guipuzcoano, mediante la suscripción de un protocolo de buenas prácticas que fomente, por un lado, la prevención del fraude fiscal; y por otro, que



prebentzioan lankidetzaz sustatzea, eta, bestetik, Gipuzkoako Foru Ogasunaren eta organismo horien arteko komunikazio kanal iraunkor bat izatea.

III. zuzenbide publikoko/pribatuko) korporazio / elkarte bat da, nortasun juridiko propioa eta jarduteko gaitasun osoa duena. Bere helburu nagusiak hauek dira:

..... bazkide ditu.

IV. Hori guztia aintzat hartuta, bi aldeak ados jarri dira protokolo hau sinatzeko, ondorengoan araberaz:

constituya un canal de comunicación permanente entre la Hacienda Foral de Gipuzkoa y dichos organismos.

III. Que es una corporación de derecho público/privado / asociación con personalidad jurídica propia y plena capacidad de obrar, que tiene como fines esenciales

El número de socios de asciende a

IV. Que por todo lo expuesto, ambas partes acuerdan suscribir el presente protocolo, con arreglo las siguientes

ESTIPULAZIOAK

LEHENA.- Helburua

Protokolo honen xedea da sustatzea zerga iruzurra prebenitzen lagundu dezaketen praktika fiskal egoki batzuen ezarpena. Bi helburu lortu nahi dira praktika horiekin: alde batetik, bere eskumen edo xedeen esparruan erakundeak egiten dituen jardueretan zerga obligazioak borondatez betetzeko eta iruzurrezko jokabideak errefusatzeko kultura bultzatzea, zerga iruzurraren prebentzioan laguntzaile ere izan dadin; eta, bestetik, Gipuzkoako Foru Ogasunaren eta erakunde horren arteko komunikazio kanal iraunkor bat izatea informazioa elkarrekin trukatzeko eta sektoreari haren intereseko gaien berri emateko.

Era berean, protokolo honen **eranskinean** jasotzen dira entitate sinatzailearekin garatu nahi diren **berariazko ekimenak**, aipatu helburuaren baitan.

BIGARRENA.- Administrazioaren konpromisoak

Administrazioaren konpromisoak honako hauek dira:

-rekin komunikazio kanal iraunkor bat izatea, berariazko ekimenak garatu daitezzen, hala nola arau ekimenen inguruko kontsultak, zerga obligazioei zabalkundea emateko ekintzak (zergapekoen talde jakin batzuetarako gidak eta

ESTIPULACIONES

PRIMERA.- Objetivo

El objetivo del presente protocolo es promover la adopción de una serie de buenas prácticas fiscales que fomenten, por un lado, la cultura del cumplimiento voluntario de las obligaciones tributarias y del rechazo de las conductas fraudulentas, en aquellas actividades que se realicen en el ámbito de sus competencias o fines, colaborando así en la prevención del fraude fiscal; por otro, que constituya un canal de comunicación permanente entre la Hacienda Foral de Gipuzkoa y ese organismo para el intercambio de información y cuestiones de interés para el sector.

Asimismo, se recogen en el **anexo** al presente protocolo las **acciones específicas** a desarrollar con la entidad signataria, derivadas del objetivo señalado.

SEGUNDA.- Compromisos de la Administración

Son compromisos de la Administración las siguientes:

- Mantener un cauce de comunicación permanente con con el fin de desarrollar acciones específicas de consulta de iniciativas normativas y de divulgación de las obligaciones tributarias, (ej. guías y manuales



eskuliburuak, esate baterako), edo departamentuaren iritziz interesgarri izan daitekeen beste edozein prebentzio neurri buruzko kontsultak.

-ko ordezkariak eta Ogasun eta Finantza Departamentukoak urtero biltzea departamentuaren egoitzan, entitateko kideek urtean zehar helarazitako zalantzak, proposamenak, iradokizunak eta abar azaltzeko eta interesgarriak gerta dakizkieken nobedadeak zein departamentuko gaiak jakinarazteko.

Foro hori urtean behin bilduko da gutxienez, eta orokorra zein sektoriala izaten ahalko da. (*)

- Jardunaldi edo mintegiak antolatzea, departamentuarentzat garrantzi edo interes bereziko gaiak direnean, zerga obligazioak zabaldu edo horiek errazteko berariazko ekimenen barruan.

- Zerga iruzurra prebenitzeko jardunaren barruan, Administrazioak zuzenean bidali ahal izango dio informazioa organismo horri.

- Ogasun eta Finantza Departamentuak bere webgunean argitaratuko du zer entitate eta organismok sinatzen duten zerga iruzurra prebenitzeko praktika onen protokoloa.

(*) *Konpromiso hau ez da sartzen sinatutako protokolo guztietan.*

HIRUGARRENA.- Entitatearen konpromisoak

Protokoloa izenpetzen duen entitateak konpromiso hauek hartzen ditu:

-Entitateko kideei errazago egitea zerga obligazioak ezagutu eta ulertzea, haien kontzientziario fiskala bultzatuz eta iruzurrezko jokabideak errefusatzeko konpromiso soziala eraginez.

Zehazki, indarra egingo du baldintza formal guztiak betetzen dituzten fakturak erabili eta

dirigidos a determinados colectivos de obligados tributarios), así como de cualquier otra medida preventiva que el departamento considere de interés.

-Celebrar un encuentro anual en la sede del departamento con representantes de y del departamento de Hacienda y Finanzas, para la recepción de dudas, propuestas, sugerencias de mejora, etc., planteadas por dicho organismo y que los distintos miembros le hayan podido trasladar a lo largo del año, así como para la información de novedades y cuestiones departamentales de interés para las mismas.

Dicho foro, que podrá ser general o sectorial, se celebrará como mínimo una vez al año. (*)

- Organizar jornadas o seminarios cuando se trate de cuestiones de especial relevancia o interés para el departamento, en el marco de iniciativas específicas de divulgación de las obligaciones tributarias o de facilitación de las mismas.

- Dentro del marco de prevención del fraude fiscal, la Administración podrá organizar el envío directo de información a dicho organismo.

- El departamento de Hacienda y Finanzas publicará en su página web el listado de entidades y organismos que firmen el protocolo de buenas prácticas para la prevención del fraude fiscal.

(*) *Este compromiso no se incluye en todos los protocolos firmados.*

TERCERA.- Compromisos de la entidad

Son compromisos de la entidad firmante del protocolo las siguientes:

-Facilitar a sus miembros el conocimiento y comprensión de sus obligaciones fiscales, fomentando su concienciación fiscal y promoviendo su compromiso social de rechazo a conductas fraudulentas.

En particular, contribuirá al fomento de la utilización y exigencia de facturas que cumplan



exijitu daitezten.

-Gipuzkoako Foru Ogasunari laguntzea kolektibo horretan gerta daitezkeen iruzurrezko praktika fiskalak antzematen, eta informazioa ematea iruzurra prebenitzeko esanguratsua bada.

-Zerga obligazioak borondatez betetzea errazteko asmoz, eskaintzen duen prestakuntzan zerga obligazioei buruzko lantegi, mintegi edo ikastaroak antolatuko ditu Gipuzkoako kolektibo horretarako, kolektibo horretan atzemandako prestakuntza beharren arabera.

-Profesionalak trebatzeko eta haien gaitasunak lantzeko prestakuntza eta praktikaldi programen barruan, entitateak kontzientziario handiagoa sortu behar du kontribuzioek zerbitzu publikoei eusteko duten balio sozialari buruz, eta iruzurrezko jokabideen aurrean tolerantzia soziala murriztea bultzatu behar du, horrekin zerga iruzurra prebenitzen laguntzeko. (*)

-Gipuzkoako Ogasunari eragiketei buruzko informazioa helaraztea, legezko mugen barruan, eragiketa horien tratamendu fiskala zabalazkoa denean eta jarduera sektore zabal bati eragiten dionean. Informazio hori aitortpenak aurkezteko epeak amaitu aurretik eman beharko litzateke, eta, ahal izanez gero, eragiketak egin aurretik.

-Departamentuaren jarduerak eta ekimenak zabaltzea, hala zergen aplikazioari nola iruzurra prebenitzeari dagokionez, eta, bereziki, departamentuaren webgunean eskuragarri dauden zerbitzu telematikoen erabilera sustatzea, erabilera hori nahitaezkoa ez denean.

(*) *Konpromiso hau ez da sartzen sinatutako protokolo guztietan*

LAUGARRENA.- Euskara sustatzeko eta erabiltzeko konpromisoa

Zergadunekiko harremanetan euskararen erabilera normalizatzea da departamentuaren helburuetako bat; hartara, protokolo hau izenpetzen duen entitateak konpromisoa hartzen du Ogasun eta Finantza Departamentuaren eta

con todos los requisitos formales.

-Colaborar con la Hacienda Foral de Gipuzkoa en la detección de prácticas fiscales fraudulentas que pudieran darse en dicho colectivo, aportando información relevante para la prevención del fraude.

-Con el fin de mejorar el cumplimiento voluntario de las obligaciones tributarias, incluirá dentro de su oferta formativa la organización de talleres, seminarios o cursos sobre obligaciones fiscales dirigidos a dicho colectivo, según las necesidades formativas detectadas en el mismo.

-Promover, dentro de los programas formativos dirigidos a formar profesionales en el ámbito de la fiscalidad, una mayor concienciación del valor social de las contribuciones para el sostenimiento de los servicios públicos y de la menor tolerancia social respecto a las conductas fraudulentas, colaborando así en la prevención del fraude fiscal. (*)

-Trasladar a la Hacienda guipuzcoana información sobre operaciones en las que existan dudas sobre su tratamiento fiscal y que afecte a un amplio sector de actividad, dentro de los límites legales. Esta información debería proporcionarse antes de que acaben los plazos de presentación de las correspondientes declaraciones y, preferiblemente, antes de que las operaciones se hayan realizado.

-Difundir las actividades e iniciativas del departamento tanto en la aplicación de los tributos como en la prevención del fraude fiscal, y en particular, fomentar el uso de los servicios telemáticos disponibles en la web departamental, cuando dicho uso no sea obligatorio.

(*) *Este compromiso no se incluye en todos los protocolos firmados.*

CUARTA.- Compromiso con el fomento y uso del euskera

Uno de los objetivos del Departamento es la normalización del uso del euskera en la relación con los contribuyentes; a tal fin, la entidad firmante del presente protocolo se compromete a impulsar el uso del euskera en las relaciones



entitateko kideen arteko harremanetan euskararen erabilera sustatuko duela.

BOSGARRENA.- Printzipio informatzaileak

Hauek dira protokolo honetan printzipio aplikagarriak:

1. Protokoloa exekutatzean entitate sinatzaileek emandako datuen konfidentziasuna eta erreserba, datuak babesteko eta sekretu komertzial eta profesionala gordetzeko araudi aplikagarria errespetatuz.
2. Elkarrekiko konfiantza eta gardentasuna, protokolo honek ezartzen duen lankidetzaren esparruaren barruan.
3. Efizientzia printzipioa, zerga sistemaren aplikazioa hobetzearren, zerga obligazioak ulergarriagoak izan daitezen zergadunentzat eta segurtasun juridikoa handitu dadin.
4. Lankidetzaren soziala, zerga iruzurra prebenitzeko eta haren aurka egiteko.

SEIGARRENA.- Indarrean jartzea eta indarraldia

Protokolo hau indarrean jarriko da izenpetzen den unean, eta urtebeteko iraupena izango du. Dena den, indarraldia tazituki luzatu daiteke urtez urte, non eta sinatzailetako batek ez duen berariaz salatzen epemuga iritsi baino hiru hilabete lehenago.

Protokoloa iraungitzeak, dela epea amaitu delako, dela bestelako arrazoiak izan direlako, ez die eragingo bidean dauden jarduketari.

Adierazitako guztiarekin ados daudela frogatzeko, eta hala jasota gera dadin, bi aldeek protokolo hau sinatzen dute.

Ogasuneko eta Finantzetako foru diputatua /
Diputado Foral de Hacienda y Finanzas

entre sus miembros y el Departamento de Hacienda y Finanzas.

QUINTA.- Principios informadores

Son principios que informarán la aplicación del presente protocolo los siguientes:

1. Principio de confidencialidad y reserva de los datos aportados por la entidad firmante en desarrollo del presente protocolo, respetando la normativa aplicable sobre protección de datos, secreto comercial y secreto profesional.
2. Principio de confianza mutua y transparencia, dentro del marco de colaboración establecido por este protocolo.
3. Principio de eficiencia, en el sentido de mejorar la aplicación del sistema tributario, aumentando la comprensión de las obligaciones fiscales por los contribuyentes y la seguridad jurídica.
4. Principio de colaboración social, en la prevención y persecución del fraude fiscal.

SEXTA.- Entrada en vigor y vigencia

El presente protocolo entrará en vigor en el momento de su suscripción y tendrá una vigencia de un año, prorrogable tácitamente por períodos anuales, salvo denuncia expresa por cualquiera de las partes con tres meses de antelación.

La extinción del protocolo, por expiración o por otras causas, no afectará a las actuaciones en curso.

Y en prueba de conformidad y para que así conste, firman las partes el presente protocolo.

Organismoaren ordezkaria / Representante
del organismo



**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIKO
OGASUN ETA FINANTZA
DEPARTAMENTUAREN ETA
..... ARTEKO
PROTOKOLOA ZERGA IRUZURRA
PREBENITZEKO. ERANSKINA**

1. TicketBAI sistema ezartzea errazteko eta hura bultzatzeko helburuarekin –zerga iruzurra prebenitzea baita sistema horren xedea–,k bere kideei eskatuko die boluntarioak izan daitezela TicketBAI sistema ezartzeko eta erabiltzeko, borondatzeko atxikimenduaren bidez.

Era berean,k bitartekaritza eta aholkularitza teknologikoa eskainiko dizkie bere kideei.

2. Borondatzeko epean atxikitzea errazteko, Foru Ogasunak TicketBAI sistemari buruzko jardunaldiak edo tailerrak antolatu ahal izango ditu, atzemandako prestakuntza beharren arabera.

3. Aurreko apartatuetan aipatutako ekintzak egoki garatzeko, alderdi sinatzaileek:

- Komunikazio kanal iraunkor bat izango dute, arau ekimenen inguruko kontsultak egiteko, zerga obligazioei zabalkundea emango dieten ekintzak garatzeko, edo Foru Ogasunak interesgarritzat jotzen duen beste edozein prebentzio neurri buruz kontsultatzeko.

- Lankidetzaren esparru bat sortuko dute, TicketBAI dinamizatzearen elkarlana egon dadin, B2B eta B2C harreman orotan elkarrengarritasunaren onurak azaleratuz, eta arau eta betebeharrak tekniko, ekonomikoak edo juridikoak betetzen lagunduz.

**ANEXO AL PROTOCOLO ENTRE EL
DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y
FINANZAS DE LA DIPUTACIÓN
FORAL DE GIPUZKOA Y
....., PARA LA
PREVENCIÓN DEL FRAUDE FISCAL**

1. Con el propósito de facilitar la implantación y de impulsar el sistema TicketBAI, cuyo objetivo es coadyuvar a la prevención del fraude fiscal, instará a sus miembros para postularse como voluntarios para la implantación y la utilización del sistema TicketBAI, a través de su adhesión voluntaria.

Del mismo modo facilitará la intermediación y el asesoramiento tecnológico a sus miembros.

2. Con el fin de facilitar la adhesión en periodo voluntario, según las necesidades formativas detectadas, la Hacienda Foral podrá organizar jornadas o talleres sobre el sistema TicketBAI.

3. Para el adecuado desarrollo de las acciones detalladas en los apartados anteriores, las partes signatarias:

- Mantendrán un cauce de comunicación permanente con el fin de desarrollar acciones específicas de consulta de iniciativas normativas y de divulgación de las obligaciones tributarias, así como de cualquier otra medida preventiva que la Hacienda Foral considere de interés.

- Crearán un marco de colaboración destinado a mantener un diálogo para la dinamización de TicketBAI aflorando los beneficios de la interoperabilidad en toda relación B2B y B2C, y favoreciendo el cumplimiento de normas y obligaciones: técnicas, económicas o jurídicas.